



## **INSTAGRAM ARGAZKI LEHIAKETAKO OINARRIAK URIBEKOSTA FOTOGRAFÍA ELKARTEAK ANTOLATUTA**

### **1. Lehiaketaren ezaugarri nagusiak:**

Lehiaketa Instagram-en egingo da.

Parte-hartzaile bakoitzeko gehienez 3 argazki igo ahalko dira Instagram-eko 'timeline'ra, honako 'hashtag' hauekin: #sopelakostafestphoto eta #ukfotografia. Halaber, @sopelakostafest kontua jarraitu beharko da sare sozial horretan.

Ez da onartuko aurretik argitaratutako argazkirik etiketatzea lehiaketan parte hartzeko.

Lehiaketaren gaia SOPELA KOSTA FEST festibalarekin zerikusia duen guztia izango da (kontzertuak, kirol- eta kultura-jarduerak...).

Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke, smartphonez zein betiko argazki-makinaz eginak, eta Instagram-ek dituen edozein filtro erabiliz.

### **2. Parte-hartzaileak**

Lehiaketan, Instagram-eko erabiltzaile den edonork parte hartu ahal izango du, herrialdea eta adina edozein dela ere, baldin eta, oinarri hauetan ezarritakoa betetzen badu.

### **3. Argazkien ezaugarriak**

Argazkiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Argazkia lehiaketaren antolatzaileek proposatutako gaiari buruzkoa izango da.
- Edizio digitala onartzen da; manipulazioa, berriz, ez. Manipulatutzat joko dira zerbait kendu edo gehitu zaizkien irudi guztiak.
- Ez dira onartuko besteren duintasunaren aurka egin dezaketen edo iraingarriak edo mingarriak izan daitezkeen argazkiak. Halaber, ez dira bidezkotzat joko animalien aurkako tratu txar arrastoak dituztenak.
- ARGAZKIETAN EZIN IZANGO DA EZAGUTZEKO MODUKO ADIN TXIKIKORIK AGERTU.

### **4. Egutegia**

-Argazkiak noiz bidali: 2019ko irailaren 19ko, osteguna, 16:00etatik 2019ko irailaren 22ra arteko, domeka, 12:00ak arte.

-Sari-banaketa: 2019ko irailaren 22a, domeka, 20:30ean udaletxeko plazan.



## **5. Epaimahaia**

Epaimahaiak aukeratuko ditu argazki finalistak (Lehengo, bigarren eta hirugarren saria).

Argazki irabazlea erabakitzeko, originaltasuna hartuko da kontuan.

Antolatzaileek argazkiaren artxibo originala eskatu ahalko diote irabazleari, egilea bera dela egiaztatzeko. Halaber, bete egin beharko ditu oinarri hauetan proposatutako 3. puntu zehazten diren ezaugarriak.

## **6. Sariak**

LEHENENGO SARIA: Bat-bateko argazki kamera.

BIGARREN SARIA: 30 euroko opari-txartela argazkiak inprimatzeko.

HIRUGARREN SARIA: 20 euroko opari-txartela argazkiak inprimatzeko.

Argazki irabazleak Instagram-eko @sopelakostafest eta @uribekosta\_fotografia 'timeline'an jarriko dira ikusgai eta aipatu egingo dira egileen izenak.

## **7. Oharrak**

Lehiaketako parte-hartzaileek adierazi eta bermatu egiten dute aurkeztutako argazkiaren egile eskubideen jabe bakarrak direla.

Irudien jabegoa egilearena izango da; hala ere, Sopelako Udalak argazkia erabili ahalko du, baldin eta, egilearen izena aipatzen badu.

Instagram-ek ez du lehiaketa hau ez antolatu, ez administratu. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hautan ezarritakoa onartzea dakar.